




Luis Miguel Macias, Josu Ortuondo eta Josu Santiago, prentsaurrekoan.

Kantauriko erkidegoek Europara joko dute arrantzaren defentsan

Bokarta eta hegaluzea babesteko neurriak eskatu dituzte

Joseba Aiarza / Bilbo

Kantauri itsasertzeko erkidegoek Madrilgo Gobernuaren laguntza eskatu dute, Europako Batasunak bokarta eta hegaluzearen arrantza babesteko neurriak har ditzan. Frantziako bokarta kuota gehitzeko akordioa atzera bota eta bolantak desagertzeko araua betetzeko eskatu dute.

ARRANTZA arloak bi arazo ditu une hauetan, bere ohiko jarduerari dagozkionak: alde batetik, Frantziako bokarta kuota 5.000 tona gehitzeko Portugalekin hartutako akordioak ariskuan utz lezake arrain horren iraupena Bizkaiko Golkoan; beste aldetik, zenbait lurraldetako arrantzaleek hegaluzea harrapatzeke erabiltzen dituzten bolanta sareak murrizteko araua ez omen da behar bezala betetzen ari.

Europako Justizia Auzite-

giak ontzat jo du Frantzia-Portugal akordioa, eta Espainiak aurkeztutako helegitea atzera bota du. Bestalde, Europako Batzordeak uko egin dio bolanta sareak erabiltzen dituzten ontzien zerrenda emateari. Arauak dioenez, bolanta ontziak %40 murriztu behar ziren aurrean, baina ez dago argi hori horrela egin ote den.

Arazo horiek aztertzeke EAE, Kantabria, Asturias eta Galiziako arrantza arduradunak Bilbon bildu ziren atzo.

Erkidego horiek Europako erakundeetara joko dute euren eskakizunak aurkezteko: alegia, Frantziako bokarta kuota gehikuntza galarazi eta bolanten gaineko arauak bete daitezkeen eskatzeko.

Kantauri aldeko erkidegoek ezinbestekotzat jo dute Madrilgo Gobernuaren konpromisoa, batez ere kontuan hartuz Frantzia-Portugal akordioaren aurka Madril aurkeztutako errekurtsioa ez zegoela ondo argudiatu.

Ildo beretik, EAJk Europako Legebiltzarrean duen parlamentari Josu Ortuondok bi proposamen aurkeztu ditu helburu berarekin. Hegaluze eta bokarta baliabideak arriskuan daudela erakusten duten ikerketa zientifikoak aurkeztu ditu Ortuondok proposamenok indartzeko.

laburrean

■ **Bizkaiko kontserba sektoreko langileen lehen greba eguna «erabatekoa» izan dela adierazi dute sindikatuek** BIZKAIKO kontserbetako langileek greba egin zuten atzo, aurtengo lan hitzarmenerako negoziazioak eten ondoren. ELA, CCOO, UGT, LAB eta ESK sindikatuek deitu zuten grebara eta, euren ustez, greba «erabatekoa izan da». Enpresarien jarrera «itxiak» irauten badu hilaren 26an eta 28an grebak jarraituko duela esan zuten. Salika, Zallo, Ormaza, Gusumano, La Gaviota, Ortiz, Heiza, Hermanos Yurrita eta Menditi enpresetan izan dira lanuzteak. Horrez gain, langileak Ondarroan eta Bermeon kontzentrazioak egin zituzten.

■ **Kutxa Fundazioak 134 monitore kaleratu dituela salatu du LAB sindikatuak**

KUTXA FUNDAZIOAK Heziketa Familiar eta Sozialeko zentroetan ikastaroak ematen ziharduten 134 monitore kaleratu dituela salatu zuen atzo LAB sindikatuak. Kutzak Donostian duen egoitzaren aurrean protesta egin zuten atzo kaleratutako langileek. Sindikatuak gogoratu zuenez, Lan Ikuskaritzak isuna ezarri zion entitateari, langile horiek ez zeudelako izena emanda Gizarte Segurantzari. Aurrean langileak ez dituela kontratatuko jakinarazi zien. Finantza sektoreko LABeko ordezkari Joxean Urkiolaren ustez, «Kutzaren etekinak urtero handitzen dira, eta gizarte lana, aldiz, gutxituz doa».

■ **Banco Popularreko langileek protesta egin dute egoitzaren aurrean, behargin baten kaleratzea dela eta**

BANCO POPULARREKO ehun bat langile entitatearen egoitzaren aurrean bildu ziren atzo, kaleratua izan zen langile baten alde protesta egiteko. Zuzendaritzak kalera bota zuen, «enpresarekin izan beharreko leialtasun hautsi zuelako». Horrekin batera, CCOO, ELA, LAB eta UGTk antolatutak bi orduko lanuztea egin zen. Sindikatuak zuzendaritzari langilea berriro har dezala eskatu zioten.



MIKEL MARTINEZ

La Navaleko langileak Iberdrolan kontzentratu dira. Sestaoko La Naval ontziolako langileek protesta egin zuten atzo Iberdrolak Bilbon duen egoitzaren aurrean. Repsolentzat gasa garraiatuko duten ontziak, Korean egin beharrean, La Navalen eraikitzeke eskatu zuten langileek. Mobilizazioetan jarraituko dute sindikatuek.

Burtsa

•J.B. Andueza•

Ilusio faltsuak?


BBVA bat-egite oldarkorra dela diote bere buruzagiek, 3 urtetan mozkinak bikoizteko gai izango omen da. Ilusioa piztu nahi dute langile eta akziodunen artean.

BBV (-%4,07) eta Argenta-riak (-%3,88) atzo galdu zuten ikusita, badirudi ilusio faltsutzat jo dituztela akziodunek aurreikuspen horiek. Denbora izango da epaile.

BSCH (-%2,09) eta Telefonikak (-%0,76) ere galerak izan zituztenez (nahiz EBZk interes tasa mugitu ez), kolpea izan zen atzo eta urte hasieratik %5,7 galtzen ari da jada Ibox-35a.

Bien bitartean, Espainiako KPI bateratua (%2,5), Europako Batasunekoaren batez bestekoaren (%1,2) bikoitza da...

Bilboko indizea



Dibisen merkatua

Pereta	165.386
Libera	6.55
Dolarra (1000)	1.0707
Libra Esterlina	0.64460
100 Yen japonikoa	1.1452

Beste indizeak

New York (Dow Jones)	10.216.64 (+%1.60)
Tokio (Nikkei)	17.448.27 (+%0.40)
Madrid (IBEX-35)	9.270.20 (+%1.44)
Paris (CAC-40)	4.602.30 (+%0.54)
London (FTSE 100)	5.930.3 (+%1.12)
Frankfurt (DAX-XETRA)	5.246.40 (+%0.8)
Milano (Milan)	22.630 (+%0.24)

■ **PETROLIOA** zoro-zoro dabil. Azken urtean %88ko igoera izan du Brent motako upelak; azken astean, berriz, %6 aitsi da prezioa, 21 dolar-rreraino. Inflazioa eta guzoratuko ote gaitu?